

ARRAPALU

GANIX IRATZEDER

Sukalde bat

KALIXTRO: hiruetan hogoi urthe — Etxeko jauna
MARIA: etxeko andarea
ANAMARI: Berhogoi urthe, Berrobideko Etxeko anderea
MANEX: Anamariren senharra, gizon larria
YENOFA: Berhobideko alaba
GANTXUME NANI: hamobortz urthe
JAUN NOTARIA: aire handiko jaun bat
sar athera: Joanes faktura

Lehen zathia

aratsealdeko seiak alderat

I

Kalixtro jarririk, Gantxume jaten ari,
Maria badabila lanean

KALIXTRO: To, to, to, eto nola jin hiz
GANTXUME: Pirripitan osaba
MARIA: Bainan ez diozu jateko astia ere uzten, jan zak Gantxume beharko duk oraino indar
Donibanerat heltzeko
KALIXTRO: Ba othe da arrainik?
MARIA: Ai gizonaren thema
GANTXUME: athunak ematen du polliki
KALIXTRO: To, to, to, emaiten du, to, to, to, aberasten dire berez arraintzaleak?
GANTXUME: Bai zorren pagatzeko doia, ez baita bethi arrainik.
KALIXTRO: zorren doia, to, to, to,... to, to, to...
GANTXUME: (*xutiturik*) gan beharko dut naski, berentzon ari da
MARIA: aski jan othe duk?
GANTXUME: ba, ba matante ongi naiz
MARIA: (*Kalixtrori*) Zer eman behar diot?
KALIXTRO: Zer derazazu?
MARIA: Bai behar zaio zerbeit eman, berzenez zer pentsatuko dute?
KALIXTRO: Nik dakita?
MARIA: Errazu ba...
KALIXTRO: hogoi sos?...
MARIA: ez,... bortz liberako bat bederen
KALIXTRO: bortz libera?... hobekienik egizu... (*Gantxumeri*) to, to, to, aspaldi zian ehintuela
ikusi.
GANTXUME: Bai urthea orai.

KALIXTRO: Urthea, to, to, to, eta ama ongi duk?
MARIA: bai, bai arras ongi milesker.
KALIXTRO: hobe, hobe, gaizo Juana, eta hire aita?
GANTXUME: Ongi ere, kexuzko batzuetan bainan.

Maria miaka ibili ondoan, bortz liberakoa emaiten dio Kalixtrori.

KALIXTRO: (*Gantxume musukatuz*) ... Goraintzi etxekoeri.
GANTXUME: Bai osaba (*Kalixtrok eskua hartzen dio eta jostu handi batzuekrin bortz liberakoa emaiten*)
GANTXUME: (*fezoinka*) O, zer pentsatzen duzu? ez nuen eta beharrik osaba.
MARIA: (*besarka*) Adi Gantxume goraintzi amari
GANTXUME: Adi osaba eta matente, eta ikus arte.

II

KALIXTRO: (*etxeari buruz*) Adi, adi, ilhoba txarra. Noiz erte dauzkitet nere izaiteak oro pottaka, pettaka xurgatuko?
MARIA: Zer nahuzu gaixo haurra ez da haren falta.
KALIXTRO: Zer diozu? falta malta eta ixtorio... igual zait eni, ez duzu uste erhogarri den agur bat eginik holako peza bat guri hartzea? Ederki pekoturik bildu baititugu guk sos horiek, ez duzu uste erhogarri den?
MARIA: (*izitua*) Errazu berritz.
KALIXTRO: zertako ez ninduzun beraz mintzatzerat uzten. Sinhetsi bazintut beharko zituen gure jatekoek denok iretsi, larrutuko gaituzte larrutuko.
MARIA: ez ginuen eta jan gabe uzten ahal.
KALIXTRO: jan gabe jan gabe, merexiko zuen azkenean, ez othe dakigu banazka zertako zaizkigun ikusterat ethortzen? zakhur egarritu guziak ithurriko alde, zenbeit sos izaki ta ahaide guziak aztaparka eta lausenguka ondotik, a, a, baitazkit nere urhe, zilar jori jorien begiratzen, ez da hala Mariaño.
MARIA: bai bai egia diozu, nere Kalixtro.
MARIA: (*kanpotik*) Hela... ez da nehor?
KALIXTRO: Zer debru da hau, ez othe dugu bakerik izanen egun? Guziek eni oldartzeko hitz harturik heldu othe zauzkitet?
MARIA: Kalma zaitte Kalixtro, kalma zaitte. Bai zoazi etxera.

III

Kalixtro, Maria, Anamari, Yenofa

MARIA: To, Anamari bere alabarekin, zer diozu?
ANAMARI: ongi eta zuek?
KALIXTRO: (*mokor*) Hala holaxet.
ANAMARI: ez ongixko zare?
MARIA: Ez ez, zaintsu. Nundik ez duzu nahi Frantzian orai ikusten diren izigarriekin.
ANAMARI: bai egia.
KALIXTRO: Alo, ez has xingulinaka, ai emazteki hoik auhenka hasteko bethi prest (*irriz*) a, e, e, jar zite, jar zite... Gizendu da eta Yenofa.
ANAMARI: (*alabari so*) Bai naski, ez da hoin gaizki, orai zenbat kilo irabazi ditutzu?
YENOFA: Ama, ganden urthariletik hunat bi kilo galdu ditut.
MARIA: A...
ANAMARI: (*khexu*) Bainan bisai hobe du halere. Eta zu Kalixtro arras ongitu zinen?

KALIXTRO: bha... ni bezalakoak ongi ala gaizki hobirat abian.

ANAMARI: ez zare hortan oraino ez. •

MARIA: ez behar ere, Berobidean denak ongi doatzi?

ANAMARI: A Maria, gaizki, gaizki, eta galdetzen dautazunaz geroz, gure zorigaitza erranen dautzuetet, hartako ethorria bainaiz ere.

KALIXTRO: (*baztererat*) To... nunbeitik ere.

ANAMARI: Bai Maria, grinetan bizi gare eta egunetik egunerat gaizkiago doatzi gure egitekoak oro, gure etxe aldea erekarat abian dugu. Gaixoa.

KALIXTRO: peningarri da.

ANAMARI: bortz haur izaki eta bizitzekorik gabe ezin egon.

KALIXTRO: bainan haurrok handitzen ari zaizkutzue.

ANAMARI: lasterrago handiturik ere zer erran nahi du. Eta hau da izigarriena, bihar berean nahi gaituzte auzitegirat deithu.

(*ez daitake mintza... Yenofa ixilik nigarrez*)

MARIA: Ez den izigarri.

KALIXTRO: bai izigarri.

ANAMARI: Martin Olhatei eta Jaun axuanta ethorri zaizkigu erranez ez baginitu gure zorrak pagatzen bihar eguerdikotz, auzi handi bat hasiko zutela Baionan, gure izaite guziez jabetu arte eta gure Manex preso altxatuko zutela.

MARIA: zer pena.

KALIXTRO: .pena gaitza.

ANAMARI: gaizo Manex, egin ahalok egin du eta holakoak adituz ez dezake nigarra atxik.

MARIA: gaizo Manex

KALIXTRO: gaizo gaizoa.

ANAMARI: eta atsegabe ikharagarri hori urrundu nahiz egon naiz gogoetan eta iduritu zait... behar niola nere anaia azken oihu bat egin.

(*Kalixtro harritua*)

Bai Kalixtro, zuri... badakit ausartegi naizela, bainan holakoetan nor ez da bere arrebari urrikutuko.

KALIXTRO: bainan ez dezaket nik deus deusik egin zuentzat.

ANAMARI: bai, bai, Kalixtro, salbatzen ahal gaituzu, Josetek berri hitsak ditu igortzen eta zu zaitugu ahaide aberats baxharra.

KALIXTRO: aberats, aberats, erhoaziko nauzue azkenean, ba othe dut aberats baten itxura?

ANAMARI: Othoi, ene anaia ez has hola, badakigu baduzula diru asko.

KALIXTRO: bai ederki pekaturik.

ANAMARI: Hori baditake, bainan jenden mihietan zikhinduak bagina zer uste duzu garbi egon zintekela, gu alde bat utzirik?

KALIXTRO: Alde bat alde bat, berzen faltak pagatu behar othe ditut?

ANAMARI: Kalixtro, zu hola zintzo. Ez othe dakizu nundik heldu zaukun gaurko zorigaitza, zuzen bezala, lagundu bagintutzu, ez ginen ez hortaratuko.

KALIXTRO: Hamar mila libera (*bi eskuak erakutsiz*)

Hamar mila gero, eman dauzkitzut ezkontzean.

ANAMARI: bai hamar urthe gabe intresaz jorituak turnatzekotan.

KALIXTRO: hola ere ez nintuen baitezpada eman behar, ez zinauzkitzun zor.

ANAMARI: ez zor? eta nola, Kalixtroidro duk bihotza, idor eta seko, bere Aitamen ontasunetan othe du alabak dretxorik?

KALIXTRO: larderiaka nahi banuzu guritu?

MARIA: Kalixtro

KALIXTRO: Ha, sinhets nezan, egon ixilik

ANAMARI: Zertako ditutzu ba zure diru horiek guziak. Haurrik ez izaki, ta ari zare bil eta bil eta ez jakin zertako.

KALIXTRO: (*irri malzur bnt*) zuk aitzinatu diruaren turnatzeko baztererat eman sos bakharrak zuri eman behar eta ez othe dugu izurite batek zortzi abere buru juan.

KALIXTRO: (*mokorxko*) aldi hortan ez ninzen zure ganat atrebitu? Martin Olhategi eta Jaun axuonta Manexi osoki fida izanez, zenbeit bururen erosteko zintzinatu zaukuten bahirik gabe ez baikinena gure etxealdean, bizitzen ahal.

MARIA: bixtan da.

ANAMARI: geroztik orhoitzen zaizte nola zizaikun Manex eritu, muthil bat hartu eta pagatu behar, funtsean ez du balio gure atsegabe guzien errepikatzea, badakizkitzue oro nik bezain ontsa, ez sa naski guk izan ez dugun malurik.

MARIA: ba, ba gaixoak denetarik izan duzue.

ANAMARI: izigarrikeri azken huntan zuen ganat ethorri naiz, ez ahal nauzue deus esperantzarik gabe utziko?

KALIXTRO: Bha, zer uste duzu eskutik eskurat miliuna ematen ahal dautzugula?

ANAMARI: ez, ez ez dugu miliunaren beharrik, ezkontzako aintzinatu nindauzkitzun hamar milatto horiek.

KALIXTRO: milatto, milatto... ezagun du ez dakizula diruaren balioa, zuhurrago izen bazine.

ANAMARI: be, be zuhur izan naiz, eta beharko gu ginen plantan ez baitzen hain errext zure hamarmila liberen turnatzen. Kalixtro ez ahal duzu eskualdun etxe bat, zure arrebaren etxea arrotzen eskutarat utziko, gure etxealdea harturik nor nahiri salduko baitute. Hitz emadozu zerbeit anaia.

KALIXTRO: zer uste duzu holako deliberazioneak hoin laster hartzen ahal direla?

ANAMARI: othoi Kalixtro.

KALIXTRO: zuek emaztekiak deusik ez zauzte diruz mintzatzeko, ez da hortan bihotzik behar, arrazoina, berzerik ez...

ANAMARI: holakoetan bihotza ez dauke eta ixilik, bainan halere arrazoin frango emandauzkitzut naski?

KALIXTRO: errazu ikusiko dut. Karkulaka aiko naiz, eta zerbait egiten ahal badut, Manex deithuko dut bihar goizean.

ANAMARI: Milesker Kalixtro, pizten nauzu piska bat, fida naiz zure bihotz onari, eta gure aitamez orhoiturik ez nauzula atsegabetan...

KALIXTRO: ba, bha, bha, tartara, gauden hortan gaurkotz.

MARIA: (*Yenofari*) Tu vas souvent à Biarritz?

YENOFA: oh de temps en temps.

ANAMARI: Maria badaki gero eskuara ere ene alabak. Ez badiotegu eskuaraz mintzatzeko usaia ematen ahuntziko zaiote.

MARIA: ba, ba egia dlozu, peningarri da nola diren bazter guziak kaskointzen.

KALIXTRO: bhaa, zer erran nahi du, erdararen medioz diru gehiago bilzen ahal bada.

ANAMARI: (*nahi lioke ihardetsi bainan...*) bon goazen, milesker beraz eta agian lagunduko gaitutzula.

YENOFA: Adi...

MARIA: Adi izan ongi.

IV

Kalixtro, Maria

Aphur bat ixilik, Maria kadira tokiz alderatzen ari delarik Kalixtro pentsaketan.

MARIA: Zer ari zara hola gogoetan.

KALIXTRO: (*hitzik ez, gero bere buruari*) Hamar mila libera, ha, hamar mila libera, ez baita sos bat hori, eutxo, eta denak ondotik ibilki.

MARIA: Zer nahuzu, Burhasoen ondorio guzia zuk daukazu, bai zure parte bai...

KALIXTRO: (*kexatzen ari*) Zer ditutzu astokeri hoik? Egin ahalak egin aitu othe naiz diru bilzen, ttur, ttur, ttur guziak oro berzeri emaiteko?

MARIA: hori ez dut erraiten, bainan holakotan...

KALIXTRO: ba, ba, ez kexa, zerbeit eginen dut, bainan ez nezazula narda zure boz mindulin horekin.

MARIA: zoin zarthua zeran gizona

KALIXTRO: zer uste duzu eztitzen dutela holako galdek?

MARIA: bai halere

KALIXTRO: (*oihuz*) to, bakea, eta futxo, futxo, zerbeit egin beharko dut bertzenaz herriko jende mende guziek ez dautet bakerik utziko.

BIGARREN ZATIA

goizeko hamarrak alderat

I

Kalixtro buruari hazka, lunetak sudur puntan,
izkiriartzen ari, Maria lore untzi batekin
kanpotik heldu, aphur bat ixilik

MARIA: Zer ari zare gizona? goizetik izkiriartzen.

KALIXTRO: ez nitaz axolarik izan, nere adinean badakit zer egin.

MARIA: agian, agian, (*baxerategiari buruz*)

KALIXTRO: (*nardatua*) egon ba ixilik.

MARIA: (*Baxerategian pausatzean bere untzia erortzen zaio eskuratuz*) hui, hui, hui...

KALIXTRO: (*luneten gainetik*) zer duzu ba oraino?

MARIA: (*izitua*) deusik, deusik.

KALIXTRO: (*jauzi batez ondorat ethoririk*) Bainan etxeko puska guziak xahutuko dauzkidazu, ez othe duzu kasu ematen ahal, higuin alaina trastea ez berzea.

MARIA: bainan ez dut deusik hautsi, behazu oraino soa da.

KALIXTRO: (*jantzerat itzuliz*) bha ez dakit zer mirakuluz.

MARIA: ez baduzu ni baino xahutzale handiagorik?

KALIXTRO: ahantzi othe zaitzu arroildu duzun pegar handi eder hori.

MARIA: zer, orai bedaratzi urthe flakaturik erortzerat utzi nuen pegar xahar hura, to, orhoitzea ere bada zerbeit, bederatzi urthez gauza bat?

KALIXTRO: bon bon, kasuemazu eto bakea.

MARIA: (*loreak bilzen ditu eta hasten da xukatzen*)

KALIXTRO: (*tanpez*) bainan ez hola thorra, ez enan hain berze indar, zura fundituko duzu osoki.

MARIA: zuk behozu bn zuro lanari.

KALIXTRO: o, gaixoa, huruski hor bainaiz, berzenaz.

II

Kalixtro, Maria, NANI

NANI: hela egun on Jaun andereak.

MARIA: bai hiri ere NANI.

NANI: zenbat ogi?

MARIA: usaian bezala.

NANI: astea bururotua da.

KALIXTRO: to, to, to bururatua.
NANI: bai akhabo dela.
KALIXTRO: akhabo, to, to, to...
NANI: zertako egiten duzu bethi to, to, to...
KALIXTRO: to, to, to, egiten dut? to, to, to... (*hiruak irriz*)
NANI: errazu jauna ez dut astirik, ganden asteko ogiak pagatu behar daiztatzu.
KALIXTRO: zer jada? egia astelehena dugu, eta egun...
NANI: alo nun bizi zare?
KALIXTRO: ekar zadazu moltsa Maria (*Mariak ekarzen dio*)
KALIXTRO: zenbet egiten du beraz.
NANI: hamar libera, eta hamasei sos.
KALIXTRO: segur haiz.
NANI: zer uste duzu ez dakitala kondatzen.
KALIXTRO: ba, ba, (*moltsari miaka*) huna bortz libera, sei, zazpi, bederatzi, hamar eta zenbat sos?
NANI: (*erne ernea*) hamasei sos, eta ahantzi duzun hogoi sosekoa.
KALIXTRO: (*berriz miaka eta*) Hamar sos hamabortz, hamasei, horra, adi NANI, ez da deus berriagorik?
NANI: eta hogoi sosekoa?
KALIXTRO: zer? bainan xuxen da kondua.
NANI: aldi guzietan komedia bera, bortz, sei, zazpi, libera, hamar, hamabortz, hamasei sos.
KALIXTRO: zahartzen ari naiz haurra (*hogoi sosekoa emaiten dio*)
NANI: adi.
MARIA: adi Nani.
NANI: ehu, ehu, harrapalu.

III

Kalixtro, Maria

KALIXTRO: mukutzua ez berzea.
MARIA: zertaiko ez berehala eman, zertako hain berze ziminokeria.
KALIXTRO: hainberze goistaia dena uste duzu bihotz minik gabe largatzen ahal den.
MARIA: bo...
KALIXTRO: izkirio hau akhabatu behar dut, jaun notaria eta Manex ethorri gabe.
MARIA: Ba Manex ez duzu oraino hemen.
KALIXTRO: bainan jaun notaria ez bide da urrun.
KALIXTRO: eup Maria zer duzu bazkariteko.
MARIA: zer egin behar da?
KALIXTRO: egun langile bat dugunaz gainean, egizu zerbeit jateko pizu, ainitz jan gabe asetzen duten hetarik.
MARIA: patata saltsa eginen dut beraz.
KALIXTRO: bai hori da (*bere izkorioari beha dago, gero kanpoari*)
to, Jaun notaria.
MARIA: (*kanporat abiatuz*) a, uzten zaituztet
KALIXTRO: bai hobe da

IV

Kalixtro, Jaun notaria, Maria iztan bat

NOTARIA: (*potxada ederrean, dena ziminokeria; athea jo...*) Agur, etxeko anderea.
MARIA: Sar zaite Jauna.

NOTARIA: (*eskua unkiz*) agur etxeko jauna, beranduxegi heldu niz, naski, bainan nere beribilak, ez zuen nelotez ere aintzinatu nahi.

KALIXTRO: ba, ez dire hamar orenak oraino, jar zaite, othoi, jauna.

NOTARIA: (*xapelaz, kartableaz, zar nahi manera eginez jartzeko*) Zure osagarria azkar, on eta pizkor senditzeko atsegina ba othe duzu egun, Kalixtro Jauna.

KALIXTRO: errazu jauna badautzut galde bat egin beharra

NOTARIA: A,

KALIXTRO: zure ustez zer balio du Berhobideko etxealdeak.

NOTARIA: Manex zure iloba jaunarena?

KALIXTRO: bai,

NOTARIA: nere arabera, nere ustez nahiago baduzu, hiruzpalau ehun mila libera.

KALIXTRO: hainberze?

NOTARIA: ba, ba jauna, bederen hiruzpalau mila liberaz goiti.

KALIXTRO: gero erranen dautzut zer egin nahi dutan. (*mahian jarzen da*) Ean zer den berriagorik?

NOTARIA: huna galdetu zinautan bilduma (*xutitzen da, xapela kadiraren gainean ezarzen du, kartablea zabalzen, izkirio bat atheratzen eta irakurtzen*) Etxidorreko Kalixtro jaunaren diruek oro batetarat ditut eta zin eginik lekuko naiz, gaineke jaun horren izaiteak egiten duela orotarar miliun bat sei ehun mila eta hiruetan hogoi ta hamasei libera eta hamabi sos. Azpi huntan nere izena dutan nik, mila bederatzi ehun eta berhogoigarren urtheko agorilaren zapian izkiriatua.
Anton Lepoluze
herri huntako notaria

KALIXTRO: (*irrikatua, bozkariotan*) a, ez banaki nere zainari gogor egiten, besarka zintzakiat bainan kasu emadazu izkirio hori norbeitetik ikus beldurrez.

NOTARIA: Badauzkitzut ere hogoi ta bi mila libera eman beharrak andere alargun bati jaz aintzinatuak.

KALIXTRO: oi zer atsegin paregabekoa, urhea bezain baliosa zare jaun notaria!

V

Kalixtro, Jaun notaria, Manex

Kalixtro tarapatan denak gordetzen ditu.

MANEX: hela etxekoak?

KALIXTRO: aintzina Manex, aintzina.

MANEX: A Kalixtro, milesker bihotz bihotzetik, behar nintuen nere bortz haurrak haztekorik gabe utzi, desohoreak behar gintuen zapatu, Anamari gaixoa nigarrez zagon, eta salbatzen gaitutzu, a ez zait ahantziko.

KALIXTRO: kalma kalma, ez da oraino egina, jar zaite iztan bat.

MANEX: (*jaun notariaz ohartuz*) Agur jaun notaria.

NOTARIA: (*ukurtuz*) agur zuri ere jauna. (*jartzen dire jaun notaria xapeleran gainean, kentzen da, kexu da*)

KALIXTRO: Huna bada gogoetan aitu naiz, ikertu ditut zure emaztearen erran guziak eta horra zer athera dutan hortarik.
(*lunetak emanik irakurzen du*)
Lehenbizikorik — erran daut bihotz idor bat naizela, barkatzen diot, baitakit emazteki baten elhek ez dutela balio handirik, eta goazen aintzina.
Bigarrenekorik, erran daut ez zaituztela behin ere lagundu eta hamar mila libera eman diozkat.

MANEX: bainan turnatzekotan.

KALIXTRO: bainan eman alainan, ez da egia jaun notaria?

NOTARIA: Fonntenebloko ithuriari ura bezala zure ahoari egia dario Kalixtro jauna.

KALIXTRO: Hirugarrenekorik — erran daut zuen auziak desohoratu behar ninduela. Ez da egia.
 Laugarrenekorik — erran daut bazituela aitamen ontasunetan dretxoak, barkatzen diot gaxtakeri hori ere.
 Bortzgarrenekorik, erren daut eskualdun etxe bat arrotzen eskuetarat ez uzteko, ez zezaken ttettelekeri handiagorik erran diruaren bilzeko; atheraldi guziek ez dute deus baliorik, halere karkulan aitu naiz, arrazoin bat ahantzi zaiola eta horri esker naiz zuen laguntzerat lehiatuko.
 Asma zazu zoin den? Zertako zaiztutet lagunduko?

MANEX: Jaunaren legeek berzen laguntzea nanatzen daukulakotz.

KALIXTRO: ez, ez...

MANEX: (*buruari hazka*) Anamarik ez baitu azkenean doterik izan.

KALIXTRO: bo, bo, gero eta gaizkiago, holakotan arrazoinaz bertze guziak deus ez dire, ez da hola jauna?

NOTARIA: berriz ere derautzut, egiari berari bezala nagokio zure solas nasaieri hurrupaka.

KALIXTRO: lagunduko zaitzuet zuek lagunduz aberasten ahal naizelakotz.

MANEX: egia aspaldiko errana, emaitzak aberasten du

KALIXTRO: Jaun notaria ekhararazi dut.

NOTARIA: zure zerbitzuko jauna.

KALIXTRO: zure etxea erosiko baitautzut.

MANEX: zer? nere etxea erosiko?

KALIXTRO: bai, preso ez ziten gan.

MANEX: bainan ez ditutzu hamar mila libera aintzinatu nahi?

KALIXTRO: Huna Berhobidea erosiko dautzuet eta bordari gisa hartuko zaitut.

MANEX: Ba othe ditake, hortarat bortxatuko nauzun.

KALIXTRO: bortxatuko ez, tratua eginen dugu.

MANEX: (*aphur bat ixilik egonik*) eta gizonaren gizona, eguerdikotz hamar mila libera behar, zertako ez ditutzu garbiki aintzinatu nahi?

KALIXTRO: bai duenari orok, har eta nik ez banitu nere izaiteak zaindu nork zautan dirurik largatuko, ez ez, onhar nere eskaintza edo, ez den izigarri.

KALIXTRO: zuen etxea zahartuxea da, eta bordari gisa, atxikitzen zaitudan ber pagatuko dautzut.

MANEX: ze, bat

KALIXTRO: Hogoï mila libera, hamar zorren pagatzeko, hamar karitatez.

MANEX: zer ez zare ahalke gutaz hola baliotzeko, a, ez dut zure ganik sos bat ere nahi, erosle bat eto zuzenogokoa nun nahi hatxemanen dut gizon bihotz gabekoa egia da beraz zikoitz eta harapalu zarela, adi jaun notaria. (*gaki da hasare*)

NOTARIA: (*harritua*) A.

KALIXTRO: (*oihuz*) Hogoï ta hamar mila libera nahi baduzu.

VI

Kalixtro, Jaun notaria, Joanes

JOANES: (*agertu gebe*) Menexi deitu... eup badut zuretako ere zerbeit. Agertzen da letra bat eskeiniz.
 Agur Jaunak
 huna (*Kalixtroti emanetz*)

KALIXTRO: milesker. (*letra zarpan emanik jarzen da berriz ere*)

VII

Kalixtro, Jaun notaria

NOTARIA: Aski ozarre bainitz, banindukezu zerbeit erran beharra, laur ehun mila libera balio dituen etxealde batetako hogoi mila edo hogoi ta hamar mila gutixegi zaizkit.

KALIXTRO: To, dohala laguntza bat eskaini dakotet ez dute onhartu, dohazila nahi duten tokirat, beraz ez da nere falta.

Eskerrik hainitz jaun notaria eta ikus arte.

NOTARIA: Othoi ez ahantz zure andreari nere partez erraitea nere orhoitzopen aphalenak jua gabe uztan diozkatela.

KALIXTRO: Bai agur (laguntzen du eta itzulzen da //

[...]